



TOKIKOM



Koko-eskea bihar



ELGOIBARKO
UDALA



***Etxean, sailkatu
zaborra gaika***

Eman izena edukiontzi
marroia erabiltzeko:
943 741 050 edo arreta@elgoibar.net



ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

Beherapenak
Furniture solutions
etxeko armairuetan!

3 ate (190 zm x 240 zm)
1.087€ Basic Modeloa

1.087€-tik aurrera!!
(muntaita eta BEZ-a bame)



OSASUN GIDA



OPTIKAK

65\07

IKUS

OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 10
Elgoibar
Tel.: 943 743 734

183\12
UZURI

- Optometria
- Kontaktologia

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00
San Frantzisko, 21

Elgoibar
Tel.: 943 740 359

MASAJEAK

22\12

VICTORIA IRAEGI

Esku terapiak

- Kiropraxia
- Dranatzaile linfatikoa
- Osteopatia
- Kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea)

Astelenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40
(atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

HORTZ KLINIKAK

171\12

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higiena eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel.: 943 530 053
lekueder@infomed.es

OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
- BERRIA!**
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
- Audiometriak
- Audifonoak
- Tonometria

Egunero:
9:30-13:00
16:30-20:00

San Frantzisko, 21
Elgoibar
Tel.: 943 740 359

FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 531 953
Tel.: 669 565 745





Maialen Arnedo

Badira hila-
bete batzuk El-
goibarko zenbait
gazte Zukgua pro-
zesuaren olatu artean
murgildu ginela. Askok
honen berririk ez dute
izango, seguruenik. Bada,
2012ko udan herriz herri martxan
jarri zen gazte prozesua dugu. Indepen-

dentzia eta sozialismoa helburu dituen gazteak elkartu eta ditugun kezka, arazo eta bizi-ikuspegiengatik inguruko hausnarketa aroa abian jar-
tzea izan da helburua. Izenak berak dioen bezala ZUK (gutako bakoitzak) eta GUK (kolektiboak) osatzen dugun batasuna da hari gidaria. Pertsona bakoitzak baduelako zeresanik, guztion ekarpena behar-beharrezkoa de-
lako.

“Zukgua prozesuaren lehen aroa bukatu da jadanik. Hala ere, egarriz gaude gu”

Hainbat eztabaidagai oinarri hartuta gure herriko egoeraren, gazterien, etxebizitza eskubidearen, generoaren... inguruan egin dugu berba. Guztia, gazterien betaurrekoekin begiratuta. Ezin uka nezake aberasgarria izan dela oso norbanako bakoitzak dituen iritzi eta ideiak plazaratzeko aukera eduki izana, eta positiboa, dudarik gabe, independenteki parte har-
tzeaz gain, talde gisa izan dugun jarrera. Denbora aurrera joan zaigu eta Zukgua prozesuaren lehen aroa bukatu da jadanik. Hala ere, gu egarriz gaude oraindik. Gure aburu eta proposamenak elkarbanatzen jarraitzeko nahiak bultzaturik, hasiak gaude aurrera begirako pausoak ematen. Hori dela eta, hilabete behin auto-formakuntza saioak eskaintzeko prest ga-
toz. Lehenengoa otsailaren 20an izango da, 20:00etan, gaztetxean. Mahai inguruan eta berotasunean bildurik, Federico Krutwig-ek 1963an argitaratu-
turiko *Vasconia* lanaz mintzatuko gara. Zeresan handia izan duen obra du-
gu hau, inor ere hotz-epel uzten ez duen horietakoa. Animatzen zara, Jo-
anes?



Joanes Rodriguez

Pena handia hartzen dut, baina ezingo naiz azaldu, Maialen. Otsailaren 20an Mar-
drilen egongo naiz ikasketa kontuak direla eta. Hala ere, esan beharra daukat ez dela erraza gaur egun autogestioan eta ekintzaile-
tzan sinesten duten gazte asko topatzea. Pena bat da egia esan, ekimenik gabe, ez baitago etor-
kizunik.

ZukGua, GukZua, pertsonatik kolektibora, euskal herritar-
rrentzat ezaguna den ohitura da. Antzinarotik euskaldunok beti izan gara auzolanaren profetak, kooperatibismoan ere artistak. Pil-pilean dagoen gai bat da hau, Maialen. Zergatik ez gara gehiago mugitzen gazteok? Zer nahi dugu? Zer behar dugu? Inoiz baino haserreago beharko genuke egon gaur egun ikusten ditugun notiziak direla-eta, nazkaturik. Zein da gure etorkizuna? Independentzia eta sozialismoaz gain, beste ukituren baten be-
harra daukagunaren ustekoa naiz. Euskaldun izatea Euskal Herri-
tik mundura, eta munduak ikus gaitzala Euskal Herri-
tzat. Ez da etxean geratzeko momentua, gazteok kalean egon behar dugu, lanean, he-
rriarentzat, norberarentzat... baina kalean. Irribarrea da daukagun
armarik boteretsuena, bizitzarekiko daukagun jarreraren isla da eta.

“Zergatik ez gara gehiago mugitzen gazteok? Zer nahi dugu? Zer behar dugu?”

Begiratzen dugun tokira begiratzen dugula, irribarrea galtze-
ko arrazoi anitz topatuko ditugu eta askotan ezin diogu eman
daukan erantzuna. Gurik bada, ‘zuk’-etik pasa beharko da, ho-
rrela izango da guztion ZukGua. Egin irri, hori sekula ezingo di-
gute kendu eta.



ESKERTZA

JESUSA ARAMBERRI ARAQUISTAIN

2013ko otsailaren 2an hil zen, 93 urte zituela.

*“Ez zaitugu gehiago ikusiko gure artean,
baina betirako egongo zara gure oroimenean”*



Sendiak

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARRENek ez du bere gain hartzen **IRITZIA** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Elgoibarko zaborren birziklatze emaitzak direla eta

Elgoibarren, urtebetean, zaborren %20a gaitza batzetik %30era pasatu gara!

BARRENen ikusi genuen notizia Euskal Herri osoko hedabideetan ere ikusi ahal izan genuen ondoren, beste notizia batzuren ondoan, tartean, Orendainen %93,73 birziklatzen ari direla (eta birziklatzen ez den zati hori gutxitzeko ekintzak prest dauzkatela).

Erraustegiaren mamua gainean zenean, Usurbilen, hilabete eskaxean %28tik %76ra birziklatzera pasatu ziren (2009ko martxoa eta apirila artean)

Ez zen miraria izan. Hernanin, Oiartzunen eta Antzuolan ere, atez atekoa martxan jarri zenean, hilabeteren buruan antzeko emaitzak lortu zituzten.

Ez da Bilduren miraria, munduko hainbat lekutan ematen ari baita fenomeno bera, eta Bilduz gain sindikatuak, talde ekologistak eta gaitzatzeko herri talde ezberdinak gaudelako honen atzean, are gehiago, egungo ekonomia adituak ere bai, ekonomikoki aukera onena delako.

Arren eskatzen diogu Elgoibarko Udalari emaitza kaxkar horiek ez zabaltzeko lau haizetara. Gu ez gara harrotzen plastikozko Elgoibar Berde honetan bizitzeaz. Utzi datuok Batzoki eta PaPNo-ko bileretarako, eta ez gaitzazue Gipuzkoaren aurrean ebidentzian laga.

Elgoibarren ere birziklatze kopurua igotzen laguntzeko prest gaude, seriotasunarekin hartzen bada. Badago nondik hasi Zero Zaborrera bidean.

Okil Beltzak ☞


ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Santa Klarara joateko lurpeko pasabidean pegatinak jarri dituzte: "Santa Klara auzora joateko lurrazpiko pasabidea txukundu du Udalak, baina norbaitek pegatina bat jarri du argi batean. Horrelako ekintzek txistuak merezi dituzte".



Iñigez Karkizao kalerako lurpeko pasabidean ez dute ranparik egin: "Pedro Muguruza eta Iñigez Karkizao kalea lotzen dituen lurpeko pasabidea berritu du Udalak, baina eskaierak bakarrik egin dituzte. Lehen aldapa bat ere bazegoen pasabide horretan, baina orain ez. Ingurune horretan gazte asko bizi dira, eta askok ume txikiak dituzte. Ume-aulkiarekin ibiltzeko oso garrantzitsua zen aldapa hori, eta ez dugu ulertzen zergatik ez duten kontuan hartu".



Sigma auzoan farola batzuk argirik gabe ditugu: "Badira bi hilabete inguru Sigma auzoan bonbila batzuk erre zirela, eta oraindik aldatu gabe daude. Udaletxean eman dugu honen abisua, baina oraindik ez dira etorri bonbilak aldatzera. Eskertuko genuke lehenbailehen aldatzea".



Txalo bero bat Mendaroko santa eskeko taldeari: "Ameikutz musika eskolak eta elizako abesbatzak eskerrak eman nahi dizkiegu Mendaroko santa eskeko taldeei. Aurtengo eskean batu duten dirua guri eman digute, eta horri esker piano berria erosi ahal izango dugu. Eskerrik asko, benetan".



Maalako bidegurutzeak askoz hobeto funtzionatzen du errotonda modura: "Luizia dela-eta, Maalako bidegurutzea errotonda bezala jarri dute azken asteotan, eta ondorioz, trafikoa asko arindu da. Gainera, errotondatik Urazandira igotzeko norabidea aldatu egin dute, eta orain Urazandiko bizilagunok errotonda hori errepidera irteteko erabiltzen dugu. Guretzako askoz erosagoa da horrela, eta oro har, denok hobeto funtzionatzen dugula iruditzen zait. Udalari eskatu nahi nioke gai hau aztertzeko, mesedez".



Kalamua Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie Herri Eskolako ate irekien egunean parte hartu zutenei: "Txalo zaparrada bat larunbatean Herri Eskolako ate irekien egunean parte hartu zuten guztioi. Aurten ere egun zoragarria pasatu genuen elkarrekin. Irakasle, guraso eta bisitari guztioi, beraz, mila esker, Euskal Eskola Publikoaren parte izateagatik. Gurea, herrikoa eta zurea den eskolan beti izango zarete ongi etorriak".



Iñaki Hernandez IMHko ikaslea Lanbide Heziketako World Skills Spain olinpiadetarako sailkatu da

Eusko Skillsen urrezko domina lortuta sailkatu da Madrilgo kanporaketarako

Hilaren 13an Madrilgo jokatu diren Lanbide Heziketako World Skills Spain olinpiadetarako sailkatu da Iñaki Hernandez IMHko ikaslea. Bera izango da Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia ordezkatu dituenen. Maiatzean Eusko Skills lehiaketa irabazita sailkatu da Hernandez Madrilgo kanporaketarako. Eusko Skillsen, urrezko domina irabazi zuen CNC Torneaketa sailean.

Goi-mailako heziketa zikloetako Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa ikasten dihardu Iñaki Hernandez azpeitiarrak Elgoibarko Erreminta Makinaren Institutuan. Iaz hasi zituen ikasketak, eta Madrilgo Lanbide Heziketako ikaslerik onenekin lehiatuko da, otsailaren 13tik 16ra bitartean. Sari banaketa otsailaren 17an izango da. Iñaki Hernandezek azarotik hona dihardu



txapelketa prestatzen, Jon Egaña irakasle eta tutorearen gidaritzapean. "Lan fina egiten dihardu Iñakik, eta ondo prestatuta doa Madrilera" ziurtatu du Egaña. Iñaki Hernandez eta bere tutore Jon Egañaz gain, Igor Larra-

ñaiga irakasleak ere parte hartuko du lehiaketa horretan, aditu gisa.

Iaz, IMHko beste ikasle batek, Larraitz Urangak, irabazi zuen World Skills Spain proba.

23 urteko moto gidari bat zauritu da, haizeak botatako zuhaitz bat jota

Zapato eguerdian, 13:10ak aldera, gertatu zen ezbeharrak Arnoate inguruan, Larruskaingo lurretan (Markina, Bizkaia). 23 urteko moto gidari elgoibartar batek haizeak botatako zuhaitz bat jota zauritu zen. Zauritutako moto gidariaren lagun batek eman zuen abisua. Deia erantzunez, Ertzaintzaren Salbamendu Taldeak helikoptero bat bidali zuen istripua gertatu zen lekura, eta moto gidariak han bertan artatzeko baino zauri larriagoak zituela ikusita, Gurutzetako Ospitalera eramatea erabaki zuten.

Deba ibaitik kamioilari baten gorpua erreskatatu dute Arriaga auzoan



Kamioilari baten gorpua atera zuten astelehenean Deba ibaitik, Arriaga auzoan. Lekuko batek eman zuen abisua SOS Deiak larrialdi zerbitzura. Lekuko horren arabera, kamioitik irten, pauso batzuk oinez egin eta autopistako zubitik Deba ibaira salto egin zuen kamioilariak. Berehala gerturatu ziren Ertzaintzaren urpekariak eta gizonaren bila hasi ziren ibaian. Altzolako presa inguruan hasi zizuten miaketak, eta ibaian gora zetozela, Rodisa enpresaren pare horretan lokalizatu zuten hilotza, ibaiertzeko sastraka artean. Herrizaingo Sailak ez du gertatutakoaren gaineko azalpen gehiagorik eman.

Irudia **Toletxegaineko obrak**



Hasi dituzte Toletxegaineko obrak. Gabriel Kurutzelaegi eta Pedro Mugurutza etorbidea batu nahi dituzte bi igogailu eta trenbide gaineko oinezkoentzako pasabide batekin. Udalak Obegisa enpresari eman zion obra, eta aurrekontua 430.047,16 eurokoa da.

Euskara **Korrika 18**

Martxoaren 20an iritsiko da Korrika, Elgoibarrera, iluntzean, 20:27 aldera. Hilaren 14an abiatuko da Andoaindik eta bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu Euskal Herrian zehar, Baionan amaitu arte. *Eman euskara elkarri* da aurtengo edizioaren leloa. Hitz horien bidez, euskara “kohesiorako tresna” eta “elkarbizitzarako gakoa” dela aldarrikatu nahi dute, eta hizkuntzaren erabileraren garrantzia nabarmendu. Hori dela eta, euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren ikasleei omenaldia egin die AEK-k. Aurten, berrikuntza gisara, aplikazio bat prestatu dute, Korrikak uneoro herri bakoitzera ailegatzeko zenbat kilometro eta zenbat denbora falta duen jakiteko.

Irudia **Kandelaria eta San Blas**



Ama Birjinaren Garbikuntza ospatu zuten zapatuan fededunek, eta haren omenez, eta eguraldiak eragin ohi dituen ezbehar eta gaixotasunetatik babesteko, kandelak bedeinkatu zituzten mezetan. Herri tradizioaren arabera, neguaren luzera edo laburra neurtzen da egun horretako eguraldiaren arabera: *Kandelario bero*, *negua dator gero* eta *Kandelario hotz*, *negua joan da motz* dio esaera zaharrak. Zapatuan egin zuen eguraldiarekin motz behar luke aurtengo neguak. Domeka, berriz, san blas opilak bedeinkatzeko eguna izan zuten eliztiarrek.

Aldi baterako egonaldiak zaharren egoitzetan

Zaharren egoitzetan aldi baterako egonaldien programan izena eman nahi dutenek otsailaren 28ra arteko epea dute izena emateko. Epez kanpo jasotzen dituzten eskabideak libre dauden plazen arabera beteko dituztela jakinarazi du Elgoibarko Udalak.

Jendaurrean eraginkortasunez hitz egiten ikasteko ikastaroa

Jendaurrean eraginkortasunez hitz egitea izeneko ikastaroa antolatu du Debegesa Garapen Agentziak. Debabarreneko enpresa-zuzendari, profesional eta, oro har, interesa duen edonori zuzendutako ikastaroa da. Otsailaren 14an hasiko da, eta 20 orduko iraupena izango du. Manu Marañon irakasle eta coach-ak emango du ikastaroa. Ikastaroa gaztelaniaz izango da, eta 250 euro balioko izena emateak. Parte hartu nahi dutenek on-line eman dezakete izena (www.debegesa.com atarian). Nolanahi ere, 943 820 110 telefono zenbakira deituta edota pymes@debegesa.com helbidera idatzita ere eman daiteke izena.

Logroñoko kartzelara martxa antolatu dute martxoaren 2rako

Arnaldo Askatu, politika askatu herri plataformak eta *Bateragune auzian* espetxeratutakoen senitarte-koek Logroñoko kartzelara martxa antolatu dute martxoaren 2rako. Egun horren bueltan, baina, ekitaldi sorta bat antolatu dute. Otsailaren 23an, esate baterako, enkartelada bat egingo dute Elgoibarren, Kalegoen Plazan, 13:00etan. Era berean, Baleuko produktorak dokumental bat grabatzeko baliatuko du Logroñorako martxa. Urrian estreinatu asmo dute dokumentala. Urrian baita ere, Lipdub bat grabatu nahi dute Elgoibarren, eta gutxienez mila lagun behar dituzte horretarako.

Erretratu zaharrak



1968

Aste honetako lehenengo erretratu zaharra 1968ko inauterietan aterata dago. Ikusten den bezala, garai hartan ere dotore disfrazatzen ziren Elgoibarko gazteak, eta umore onean pasatzen zituzten inauteriak. Argazkiko horiek lagun baten etxera joan ziren disfrazatzera, eta gero afaria egin zuten herriko jatetxe batean. Gogora ditzagun zeintzuk diren gazte horiek:

Zutik: Maria Asun Mendikute, Maribel Vazquez, Aintzane Sanchez, Maria Isabel Zabaleta (†), Marisol Altuna, Amaia Arriola, Angelita Larrañaga eta Maite Arozena. **Makurtuta:** Mari Juli Konde, Ana Mari Txurruka eta Mari Carmen Jauregi.



1974

Bigarren erretratu zaharra Maria Oñederrak ekarri du BARRENERA. 1974ko Santa Ageda bezpera egunekoa da, eta Etxegiña taldekoak ageri dira argazkian, santa eskean hasi aurretik.

Ezkerretik eskumara: Ixidor Sodupe, Jose Mari Mugertza (†). German Uriguen 'Etxegiña' (†) Abdon Baskaran (†) eta Felix Juaristi.

OIER ARAOLAZA

ANTROPOLOGOA

Haritz dantzari taldearen 40. urtemugaren harira antolatutako ekitaldien barruan, ‘Disfrazatzea ez da mozorrotzea’ izenburuko hitzaldia eskaini zuen Oier Araolaza antropologo eta *Dantzán.com*-eko kideak Elgoibarren, duela bi aste. Neguko festen testuinguruan kokatu zituen Araolazak inauteriak, eta Domu Santu egunetik Garizumara arteko beste hainbat ospakizun edo neguko festen ikuspegi ezohikoa erakutsi zuen. Neguko festek badute ezaugarri komun bat: eskea. Eta hain zuzen ere, inauteri sasoiko eskea, koko-eskea, egingo dute bihar Haritz dantzari taldekoek eta Eibarko Kezka taldekoek, Mauxitxa txarangaren laguntzarekin. Kalegoen plazan hasiko dituzte koko-dantzak, 19:00etan, eta kalez kale ibiliko dira dantzán, mozorrotuta.



“Birziklapena dago mozorrotzearen oinarrian”

Hiztegiak sinonimotzat ditu mozorrotzea eta disfrazatzea. Zuek bereizi egiten dituzue, baina. Zer dela eta?

Lehen mozorrotzea zer zen eta gaur egun oraindik ere toki askotan zer den erakusteko sortutako hitz jokoa da hori, oso diferentia delako mozorrotzearen berezko ideia eta gaur egungo karnabal urbanoan disfrazatzea esaten duguna. Jendeari ikusarazi nahi genion badagoela beste inauteri mota bat, badagoela neguko festen inguruko kultura tradizional bat.

Zer da bata, eta zer bestea?

Disfrazatzea normalean erraz identifikatzen dugu zer den. Disfrazatzen gara pailazoz, indioz, pirataz... eta disfrazatzerakoan garbi ikusten dugun gauzetako bat da *zertaz* galdera dela garrantzitsua. Aldi berean, baina, oso garrantzitsua da disfrazatutako pertsona hori zein den argi gelditzea. *Nor* eta *zertaz* dira garrantzitsuak. Batetik, oso garrantzitsua da *zertaz* hori ahalik eta irudimentsuena, politena, txukunena, ustekabekoena izatea, baina esfortzu horrek *nor* hori estaltzen bada, ez zaigu errentagarri iritzen, inork ez baina ezagutzen alferrik delako nik hartu du-

dan lan guztia. Eta, jakina, garrantzitsua bada norbera ezagutzea eta norbere irudimena edo ekarpen estetiko baloratzea, sortuko ditugun disfrazek ere konbentzio orokor batzuk beteko dituzte. Mozorrotzeak, berriz, ez du zertaz galdera onartzen. Zu zaren hori ez-kutatzea da mozorrotzea; eguneroko nortasuna isiltzea, inork ez ezagutzeko. Horregatik oso ohikoa da aurpegia belzte eta zikitzea. Bada beste kontu bat: birziklapenaren funtzionamendua dago mozorrotzearen oinarrian: etxean dauzkazun lau trapu zahar hartu eta norbere burua ezkutatu.

Estetika jakin bat ere badaute, baina, mozo-roek, ala?

Mozorrotzean, nekazaritza eremuan behinik behin, erabiltzen diren elementuak baserri inguruan aurki ditzakezunak izaten dira: amaren armairu zaharreko erropez gain, ganbaran pilatutako izara eta abarrak, ukui-luko zakuak eta erremintak, ganadu-larruak, adarrak, zintzarriak... Eta, bai, mozorrotzeko orduan ere badaude joera batzuk. Nolanahi ere, oinarrizko mozorro pro-klasiko horrek ez dauka jatorrizko izendapenik, Euskal Herriko, edo are, Europa mendebaldeko edozein herrialdeetako mozorroa berdina delako.

Mozorro arketipoak badaude, baina.

Bai, badaude mozorro ideia batzuk Europako mendebaldeko inauterietan errepikatzen direnak. Txunturroak eta joaldunak esate baterako. Hemen zanpantzar izenarekin zabaldu ziren joaldunak, baina Ituren eta alde horretan inork ez die zanpantzar esaten joaldunei. Zanpantzar berba *Saint Pansard*-etik (karnabaletako erregea Frantzian) dator berez. Iparraldekoek ohitura handia izan dute beti Ituren eta Zubietako karnabalak ikustera joateko, beti izan dutelako sona handia, eta uste da haien eraginez zabaldu dela kanpora zanpantzar berba. Dena dago nahastuta, eta horixe da berez neguko festen esentzia: nahastea.

“Hemen, gure gurasoen belaunaldira arte ospatu dute Halloween gaua”

Europa mendebaldea aitatu duzu, eta gu mozorro horiek geure-geureak zirelakoan.

Kultura tradizionalan beti gertatzen da hori, bai mozorro kontuetan eta baita neguko festen gainerako zer guztietan ere. Kulturak ez ditu, baina, mugak ezagutzen.

Neguko festak aipatzen dituzu behin eta berriro, eta testuinguru horretan kokatzen dituzue inauteriak. Zer dira neguko festak?

Inauteria epe mugatu eta garbi bateko festa da: herri gehienetan, ostegun gizenetik haus-terre asteazkenerainoko epea egiten dira.

Inauteriak neguko festen parte dira, baina gehiago da: neguko festak ez dira inauteriak besterik. Azaroaren hasieran hasten dira neguko festak, Halloweenekin, eta Garizumarekin amaitzen dira. Neguko festak, berez, nekazaritza feriez beteta daude: San Martin, San Andres, Santa Luzia, San Tomas, San Anton. San Blasera arte, denak dira nekazaritzaren inguruko azokak, eta horiekin lotuta, leku askotan eskeak egiten ziren lehen, eta egiten dira oraindik ere. Villabonan, esaterako, Amasa auzoan, baserriz baserri irteten dira, oilasko biltzea egiten, eta gero, mozorrotuta, oilasko jokoa egiten dute.

Zer ezaugarrik batzen ditu neguko festak?

Halloween hildakoen arimen jaitzat daukagu, eta bada, baina berez, neguko festen oinarritzko zutabea, eskea, markatzen duen jai da. Halloween, San Nikolas, santa eskea, inauteriak... neguko festa guztien oinarrian dago eskea. Horiek denetan, gazte talde batek eramaten du festa etxez etxe, eta trukean, goxokiak, jatekoa, edana, dirua... jasotzen dute.

Hau da hau. Ameriketako Estatu Batuetatik zetorkigun jaitzat geneukan guk Halloween. Baina, euskal jai da orduan.

Erabat. Halloween hitzak arima guztien gaua esan nahi du (*all hallows evening*). Hemen, gure gurasoen belaunaldira arte ospatu den gaua izan da. Gure aitak ere ospatu izan du, Zizurkilen. Joan barazetara, kalabazak lapurtu, hustu, kandelak jarri eta bide bazterretan jartzen zituzten, jendea izutzeko. Hori Euskal Herri osoan eta Europa mendebalde osoan egin da herenegun arte, baina gertatu dena da aldi batez ahaztuta izan dugula eta Hollywoodi esker ezagutu dugula gero, kontsumo festa bihurtuta. Gurea zela ez jakiteak egiten du festa arrotza, kontzientzia ezak. Kontua da merkataritza industriak erabaki duela neguko kanpaina hasteko modu on bat dela, inbaditu dituela komertzio handi zein txiki guztiak parafernalia horrekin eta jai hori ospatzen hasi direla gure gazteak, jai amerikarra delako ustean. Dena den, aldaketa bat badago gure gurasoek ospatzen zutenetik hona: lehen, mozorroaren festa zen, eta orain, disfrazaren festa.

Halloween bakarrik ez, Santa Klaus edo gaur Bizar Zuri den hori ere geure-geurea ei da.

Santa Klaus, bai. Santa Klaus gure San Nikolas da. Gure aitonarenean, Elgoibarren, bai Gabon Zahar egunean eta baita Urteberri

Egunean ere “*San Nikolas coronado, confesor es muy honrado*” abesten zuten, eta San Nikolas hori da: Santa Klaus. San Nikolas, berez, Anatolia inguruko obispo umezale bat zen, eta figura horren aitzakian ospakizun bat sortu dugu. San Nikolas egunak indar handia dauka Legazpin, Seguran eta inguruotan. Asto baten gainean ume bat obispo jantzita jarri, eta etxez etxe ibiltzen dira, karamelo batzen. Baina Bizar Zuri hori... zalantza daukat zeri esaten dioten. Iruditzen zait *Papa Noel* eta Olentzero fusionatzen ari direla orain. Olentzerori bizar zuria jarri diote, eta Noelizatu egiten dute.

“Genero ikuspegitik begiratuta, hanka-sartze handia da Mari Domingi”

Eta zer diozu festa tradizional horien jatorriari? Santa Agedaz, adibidez, entzuna daukat makilarekin lurra kolpatuz lurra esnatzen aritzen direla koplariak.

Lurra esnatzearen kontu hori George Frazer antropologoaren ekarpena da (*The Golden Bough / Urrezko adarra*, 1890). Berak dio Europako nekazariak ospatzen dituzten festa eta eritu guztien helburua dela lurra ahalik eta emankorrena izatea. Horren arabera, neguan zer egiten dugu? lurra kolpatu, esnatu eta lora dadin. Hori hor dago, baina momentu zehatz bateko interpretazioa da. Ni ez naiz maila interpretatiboan sartzen. Garaian-garaiko ikuspegi ideologikoaren arabera egiten dira interpretazioak, eta, jakina, milaka daude. XIX. mendean eboluzionismoa zen joera indartsuena eta festa eta kultur ekoizpen guztiak paradigma horren arabera antolatzen ziren. Badaude, hala ere, eskola teoriko batzuk arrasto sakonagoa lagatzen dutenak, eta ez zuzenagoak-edo direlako, baizik eta jendeari erakargarriago egin zaizkielako. Antropologia marxistak, funtzionalistak eta simbolikoak ere, sekulako lan interesgarriak egin dituzte inauterien eta kultura tradizionalaren interpretazioaren inguruan, baina ez dira horren ulerterrezak, eta ondorioz, ez dute horrenbesteko oihartzunik izan.



Arg.: www.dantzan.com

Eskea dute denek oinarrian, eta leku askotan adin jakin batekoak irtetzen dira eskera. Horrek badu azalpenik?

Arnold van Gennep antropologo frantziararren arabera, bai. Aroetako erritualak planteatzen ditu berak. Adin jakin batekin denok egiten ditugu adin aldaketa sinbolizatzen duten errituak. Kintoen ospakizunak, adibidez, toki askotan mantentzen dira. Aretxabaletan eta Eskoriatzan, esaterako, kintoak irteten dira eskera, eta hala, ume izateari laga eta helduen gizartean sartu direla adierazten dute.

San Nikolas eta Santa Klaus aipatu ditugu eta pertsonaia berbera direla esan. Bada alderik, baina, bien artean. Santa Klausek opariak ekartzen ditu, eta San Nikolasek?

Bai, San Nikolas, Santa Ageda... eta gainerako guztiak eskean irteteko aitzakiak baino ez dira. Umeek oso garbi daukate nork ematen duen. Pertsonaia bat erabiltzen dute beste zerbait lortzeko, baina ez diote pertsonaia horri inolako gaitasun magikorik aitortzen. Gertatu dena da XIX. eta XX. mende ar-

tean iraulketa bat egon dela. San Nikolas Europa mendebaldeko pertsonaia bat da, bere garaian irlandarrek Ameriketara eraman zutena. Han, eboluzio bat izan zuen pertsonaia horrek: opariak eskatzeko aitzakia

izatetik ezaugarri magiko batzuk hartu eta opariak berak ekartzera pasatu zen. Hori dena XIX. mendean gertatzen da. Gero, XX. mende hasieran, Coca-Colak bere sinbolotzat hartu zuen Santa Klaus, eta pertsonaia horrek lehendik zituen ezaugarriak Coca Colak sortutako ezaugarriak eransten zaizkio. Ordura arte, obispo jantzita agertzen zen beti Santa Klaus, eta kolore morez, berdez eta gorritz irudikaten zuten, baina Coca Colak erabat sekularizatu zuen eta erabat gorri bihurtu. Eta hortik aurrera Gabonak gorriak dira denontzat, eta mundu osoan.

Hemen ere bai?

persona. Olentzeroren ezaugarriak ere ez ziren batere atseginak. Ikazkina zen leku askotan, baina beste hainbat ofizio ere ezagutu izan zaizkio. Kostaldean, adibidez, arrantza-lea ere izaten zen. Hori bai, Olentzero ez zen batere umezalea, eta askotan, umeak bildurtzeko erabiltzen zuten gainera. Gaur egungo Olentzero ereduak ez du bilatzen, hala ere, inor beldurtzea. Politikoki zuzena egin dute orain. Lehen, mozkorti erretzaile bat zen; ezer ez zeukan pertsonaia kaxkajo bat. Orain ez du edaten, eta pipa ere kendu diote.

Orain, parekidetasunaren izenean-edo, laguna ere jarri diote gainera.

Hori da punturik okerrenea. Genero diskurtsoa aplikatu nahian, dagoenik eta familia estereotipo atzerakoiena instalatu dugu. Mari Domingi hanka-sartze handia da genero ikuspegitik. Pertsonaia bat sortu dugu, izatez abesti batean baino ez delako aipatzen Mari Domingi izeneko pertsonaia. Bada, pertsonaia hori hartu eta bikote bat sortu dugu. Olentzerok bikotekidea behar duela planteatze hutsa larria da, eta, gainera, bikotekide horrek emakumezkoa izan behar hori... Eta ez da hori bakarrik. Gizonezkoen estereotipo guztiak batzen ditu Olentzerok, eta emakumezkoa, berriz, Mari Domingi, lasaia, atsegina eta ederra da. Sarri tokatu zaigu gai honen inguruan eztabaidatzea, eta Mari Domingiren aldekoek esaten dute umeek, batez ere neskek, eredu femeninoa behar zutela.

Ereduak, baina, maila berekoak izan beharko



Arg.: www.dantzan.com

lukete, ala?

Jakina. Zer lortu dute horrekin? Bada, tradizioan genero markaturik ez zeukan pertsonaia bati generoa zehaztea. Olentzero emakumezkoak ezagutu dira tradizioan. Baina, orain, erakutsi beharrean Olentzero izan daitekeela gizonezkoa nahiz emakumezkoa, hau da, erakutsi beharrean sexuak ez daukala garrantziarik pertsonaiaren izatean, egin dutena da "emakume loreontzia" sortu.

Bai, eta hori da tristea. Gauza bat da industriari indar hori izatea, eta beste bat da guk hori besterik gabe onartu eta sustatzea, Olentzerorekin Eguberri gorriak bultzatzen ari garen moduan.

Olentzerori ere leku askotan bizar zuria jarri diotela esan duzu. Bizar zuria ez dakit, baina zeharo guapotu dute azkeneko urteotan.

Bai, eta berez, San Nikolasen antzera, eskean irteteko erabiltzen zuten panpin bat baino ez zen Olentzero. Panpina egiteko dirurik edo astirik ez zutenean bakarrik izaten zen



Arg.: www.dantzan.com

Santa eskea, argazkitan

Barrurako eguraldi hobea egiten zuen kanporako baino, baina horrek ez zituen santa eskeko koplariak kikildu. Eguraldi hotz eta bustiari aurre Began, makilak eskuan hartu, eta kantura irten ziren zapatuan Etxegiña taldekoak Elgoibarren, eta baita Mendaron ere, hango 50 bat laguneko taldea. Kalez kale ibili ziren Etxegiñakoak, eta hiru taldetan banatuta, Mendaroko kaleak nahiz baserri auzoak koplatu zituzten besteek, Beñat Liza-so, Gregorio Larrañaga *Mañukorta*, Asier Lazarbaster *Agarre* eta Aitzol Urain *Bidaburu* bertsolariek lagunduta. Urtero moduan, Caritasi eman zioten Etxegiñakoek bildutako dirua (1.145 euro). Mendaron, bestalde, 2.910 euro batu dituzte aurten, Ameikutz Musika Eskolarentzat. Tradizioak agindu legez, astelohenean irten ziren kantura Elgoibarko Izarra kultur elkarteak, Santa Ageda bezperan. 32 bat lagun elkartu ziren, eta Aia, Ido-torbe, Arriaga, Sallobente eta Urruzuno auzoetako 40 bat baserri koplatu zituzten, 15:00etan hasi eta 22:00ak bitartean. Urtero legez, baserritarrak ondo baino hobeto portatu ziren limosna emateko orduan. **Argazki gehiago eta bideoa: www.elgoiBAREN.net**



Etxegiña taldekoak taldeko argazkia atera zuten zapatuan, Bolatokian, santa eskera irten aurretik.



Mendaron, Azpilgoeta auzoa koplatu



Aranerrekakoak Bidaburura bidean, Mendaron.



Euria, kazkabarra... ez zuten kanturako giro izan zapatuan.



Etxegiña taldeko koplariak, kantuan, zapatuan.



Elgoibar



*Bixente o
Mendaro*



Elgoibarko Izarrako koplariak baserri baserri aritu ziren kantuan.



Etxeko epeletik entzun zituzten koplak herritar askok.



zuen taldea.



Narbaiza eta 'Meabe' bertsolariak, santa eskean.



Koplariak, Mendaron, Bitoriano Loiola soinu jolearekin.



Izarrako koplariak, Mausitxa baserriko atarian.



Asier 'Agarre' koplakantari, Mendaron.



izabal eta Beñat Lizaso,
balgo taldeko koplarietako bi.



Elgoibarko Izarrako taldea, kantura irten aurrettxoan.

MIKEL LASKURAIN

Aktorea

‘Emaztegaiaren semea’ izeneko filmean oinarritutako trajikomedia ekoiztu du Ados Teatroak, eta datorren barixakuan taularatuko dute Herriko Antzokian. Emanaldia euskaraz izango da, eta 20:30ean hasiko da.



‘Emaztegaiaren semea’ antzezlaneko aktore taldea: Sara Cozar, Asier Hormaza, Mikel Laskurain, Iñake Irastorza eta Kandido Uranga.

“Gertuko istorioa da, eta ikusleak identifikatuta sentitzen dira”

‘Emaztegaiaren semea’ taularatuko duzue gaur zortzi Herriko Antzokian. Zertan datza? Aitak herentzian utzitako jatetxea dauka Rafaelak, eta egoera oso zailak bizitzen ari da: diibortziatuta dago, ez du alaba ikusten, lanik aurkitzen ez duen bikotekidea dauka... estre-saturik bizi da, eta inora iritsi ezinik. Egoera horren barruan, aitak amarekin elizaz ezkondu nahi duela esango dio. Amak Alzheimer gaixotasuna dauka, eta aitak opari hori egin nahi dio: zuriz jantzita elizaz ezkontzea. Rafaelak ez du aitaren ideia hori ulertzen. Ama ez dela ezertaz jabetzen uste du, eta hori egiteak ez duela merezi esango dio aitari. Azkenean onartu egingo du aitaren nahia eta ezkontza antolatzen lagunduko dio.

Izen bereko filma moldatu duzue antzerkirako. Nola funtzionatzen dute horrelako birmoldaketek?

Kasu honetan ondo ari da funtzionatzen. Tolosan estreinatuta genuen, eta joan zen astean Hondarribin egon ginen. Bi saioetan antzokiak bete egin ditugu. Jendearen erantzuna

oso ona izan da, txalo asko jaso ditugu eta ikusleak gustura egon dira. Trajikomedia estiloko antzezlan da. Barre egiteko pasarteak daude, eta baita negar egitekoak ere bai. Gertuko istorioa da, edozeini gertatu ahal zaion kontua alegia, eta ikusle asko identifikatuta sentitzen dira. Istorio errealista da.

Zuk zein paper betetzen duzu?

Rafaelen laguna naiz ni, eskola garaiko laguna. Nire pertsonaiak ere bizimodu konplikatua dauka, eta hainbat urteren ostean, herri- itzuliko da ume garaiko lagunak berreskuratzera. Ikuskizunari umore eta komedia ukitua ematea tokatu zait niri. Lehen esan bezala, trajikomedia bat da, eta niri tokatu zait ikusleei barre eginaraztea.

Elgoibarren sarri ikusi zaitugu antzeztan. Nolako publikoa da Elgoibarkoa?

Gu oso ondo hartzen gaituzte beti. Azken urteotan kale antzerkia egitera joan izan gara sanbartolomeetan, eta oso gustura jarduten dugu. Ni Elgoibarrera pozik joaten naiz. Herriko Antzokia ere ezagutzen dut, eta oso to-

ki aproposa da antzerkirako. Beste behin lanbide heziketako sari banaketaren batean ere hartu nuen parte. Gaztetan Elgoibarren ardo batzuk hartutakoak gara! Bergarakoa naiz ni, eta hizkeran ere badaukagu antza elgoibartarrekin. Euskara berbera ez bada ere, oso ondo ulertzen dugu elkar.

Krisiaren eraginez, antzokiak betetzea zaila dagoela diote...

Bai, hala da. Internet eta telebista gure konpetentzia zuzenak dira, eta gero eta zailagoa da antzokiak betetzea. Orain arteko emanaldiekin pozik gaude, baina ez dakigu honek noiz arte iraungo duen.

Animatu elgoibartarrak antzezlan ikustera.

Bost aktore ezagun ikusiko dituzte taula gainean, interpretazio lan ona eginez. Orain arteko ikusle gehienek esandakoaren arabera, antzezlan laburra egin zaie. Erraz ulertzeko ikuskizuna da, arina eta gozatze-koa. Debarrenean estreinaldia Elgoibarren izango da, eta espero dugu ikusleek ondo erantzutea.

Musika eta koloreak nahastuko ditu Sinuosek gaur gauean, 'Kromoterapia' izeneko ikuskizunean

Kultur Etxeko sotoan izango da kontzertua 23:00etatik aurrera

Inauterietarako musika saio berezia prestatu dute Patxi Zabaleta eta Iban Urizar Sinuose taldeko kideek, azken urteetan bezalaxe. Gaur gauean izango da emanaldia, eta beti bezala, zerbait berezia prestatu du musikari bikote honek. Gaur musika eta koloreak uztartuko dituzte, *Kromoterapia* izeneko ikuskizunean. Nolabait esateko, musika eta koloreak erabiliz terapia egingo dute. 23:00etan hasiko da saioa Kultur Etxeko sotoan, eta sarrera doan izango da.

1997tik inauterietan

1997an hasi ziren Patxi Zabaleta eta Iban Urizar inauterietan musika saio bereziak eskaintzen. Malape tabernan eskaini zuten kontzertua hasierako urteetan. Ondoren, Herriko Antzokia edota Toletxe taberna izan zituzten eszenatoki, eta azken urteotan Kultur Etxeko sotoan ematen dituzte musika saioak. Kontzertu desberdinak eta bereziak egiteko asmoz hasi ziren. Batzuk zaratatsuak, beste batzuk goxoak, arraroak

beste zenbait, baina beti ere, musikaz gozatzeko asmoz antolatutako saioak izan ohi dira.

Sinuose proiektuaren berezitasun handiena proiektuaren lokaltasuna da. Sinuose ez zen jaio ohiko musika talde izateko, eta taldekideek inoiz ez dute izan diskoak atera eta saltzeko asmorik. Sinuose Elgoibarren bertan gorpuztu zen, eta horregatik, musika saio guztiak Elgoibarren eskaintzen dituzte. Sinuosek Elgoibarren eta elgoibartarrentzat eginiko kontzertuak izatea nahi zuten, eta gainera urtean kontzertu bakarra eskaintzeko asmoz hasi ziren lanean. Honek guztiak zentzu berezia ematen dio Sinuosek egiten duen musikari: ez du estilo edo joera konkreturik; Sinuoserentzat denak dira baliagarri: musika gogorra, lasaia, musika tresna tradizionalak edota modernoak, zinemaitsuak, haurrentzako jostailuekin eginkoak... mugarik gabeko musika egiten du Sinuosek.

Aurtengo inauterietan hamazazpi-



garren saioa eskainiko dute, eta aurreko urteetan bezala, modu berezian prestatu dute emanaldia.

'Anaki' antzerki multimedia aurkeztuko dute hilaren 17an Herriko Antzokian



Umeentzako *Anaki* antzerki multimedia aurkeztuko dute otsailaren 17an Herriko Antzokian. Marrazki bizidunekin antzekotasuna dauka antzezlan berritzaile honek. Anakiren ezustetarako, Kotaro robotak zerratik haratago hegan egiteko gaitasuna dauka. Planeta zoragarriekin egingo dute topo, eta hamaika abentura biziko dituzte. Umeentzako ikuskizuna bada ere, familia giroan gozatzeko aukera eskaintzen du. 16:30ean hasiko da ikuskizuna, eta sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, Herriko Antzokiko lehiatilan. Umeek 3,5 euro ordaindu beharko dituzte, eta nagusiek, 5 euro.

IKT erabilerari buruzko ikastaroa antolatu dute

Debegesa Garapen Agentziak teknologia berriei buruzko ikastaro praktikoa antolatu du otsailerako. Debabarreneko enpresa txikiarentzako eta autonomoentzako ikastaroa izango da, eta bi saiotan eskainiko dute. Hilaren 14an izango da lehenengo, eta 21ean bigarrena. Eibarreko KZ Gunean eskainiko dute ikastaroa (Bista Eder 10-Portalea), 14:00etatik 16:00etara. Parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute, ekin-tzaile@debegesa.com helbidera idatziz edo 943 82 01 10 (Vanesa Hortas) telefono zenbakira deituz.

IÑAKI ODRIOZOLA

Cafe Bar Bilbao Teatro Laburreko Saria jaso du



Iñaki Odriozola elgoibartarraren ‘Azken ordua’ izeneko lanak irabazi du euskarazko lan onenaren saria, Bilboko Cafe Bar Bilbao tabernak antolatzen duen Teatro Laburreko Gidoi Sarietan. Odriozolak aspalditik dauka antzerkirako zaletasuna. Hainbat obra dauzka idatzita, eta garai batean antzeztu ere egiten zuen, Elgoibarko antzerki taldeetan. Pozik hartu du saria.

“Konpromisorik gabeko zaletasuna da niretzat idaztea”

Antzerki laburren gidioen lehiaketan jaso duzu saria, ‘Azken ordua’ izeneko gidoiarekin. Zer dela eta animatu zinen parte hartzera?

Betidanik ibili izan naiz antzerki munduan, eta aspalditik daukat antzerkirako zaletasuna. Garai batean Taupada eta Ekeki antzerki taldekoekin antzeztu ere egiten genuen! Eta gidoiak idaztea ere gustatzen zait. Testu hau aspalditik neukan idatzita, eta beste batzuk ere baditut kajoian gordeta. Antzerki laburren gidoiak eskatzen zizuten, eta tamaina aldetik hau ondo zetorren. 35 bat minutuko antzerkirako prestatura dago, eta bidali egin nuen. Sorpresaz hartu dut saria, baina pozik. Horrelako sariak idazten jarraitzeko animoa ematen dute.

Zeri buruzkoa da ‘Azken ordua’ antzerkia? Erdi Aroko errege buruzagi bat da protagonista. Filosofia irakaslea naiz, eta maitasuna eta gorrotoa bezalako gaiak interesa-

tzen zaizkit. Gai unibersalak. Errege baten hausnarketa da oinarria. Bere semea izango da etorkizunean errege, eta badaki bera hiltzera datorrela. Egoera horretan bere burutik pasatzen diren pentsamenduak azaltzen dira.

Obraren irakurketa publikoa ere egin dute. Zer iruditu zitzaizun?

Patxo Telleriak irakurri zuen hamabi bat minutuko laburpena eta gustatu zitzaidan. Telleria oso aktore ona da, eta ondo gertatu zen gidoia.

Ikusteko, gidoiak idazteko ala antzezteko gustatzen zaizu antzerkia?

Gaztetan aktore ibili nintzen. Aktore amateurra nintzen orduan, eta orain idazle amateurra naiz. Gustuko dut idaztea eta gustatzen zaidalako idazten dut. Konpromisorik gabeko zaletasuna da niretzat idaztea. 94an poesia sari bat ere irabazi nuen, eta aurretik, Elgoibarko Izarrak antolatutako Etxepe saria irabazi nuen. Lehe-

nengo edizioko irabazlea izan nintzen, Hasiere Etxeberriarekin batera. Berak narrazioan jaso zuen saria eta nik, poesian. Aspalditik daukat idazteko afizioa eta deskonektatzen laguntzen dit. Ondo sentitzen naiz idazten. Denetarik idazten dut.

Nola hartu dituzu Kulturak izan dituen murrizketak?

Egoera zaila da. Nik afizioz idazten dut, baina idaztetik bizi direnentzako ez dago erraztasunik. Jende ona dago bai idazten eta baita antzerkigintzan ere, baina aurrera egitea zaila da. Euskal kulturaren mundua oso mugatua da.

Gazteek gero eta gutxiago irakurtzen dutela esaten da. Zu irakaslea zara. Zer iruditzen zaizu?

Ez dakit gero eta gutxiago irakurtzen duten, baina oso gutxi irakurtzen dutela egia da. Hala ere, belaunaldi guztietan iriteten da norbait aurrera. Orduak sartu behar dira, eta konstantea izatea ezinbestekoa da.

Koko-dantzak egingo dituzte bihar Kezka eta Haritz dantzari taldeek Mauxitxa txarangarekin

19:00etan hasiko dira koko-dantzak Kalegoen plazan

Koko-dantzak izango dira aurtengo berrikuntza inauterietan. Haritz dantza taldeak 40 urte egingo ditu aurtentzen, eta hori ospatzeko ekintzen artean koko-dantzak antolatu dituzte biharko. Eibar-ko Kezka dantza taldeak duela sei urte antolatu zuen estreinako koko dantzen kalejira, eta bihar Elgoibarrera ekarriko dute ekimena. Kalegoen plazan hasiko dute desfilea 19:00etan, eta Mauxitxa txarangarekin batera jardungo dute kalez-kale dantzan.

Egitarau zabala

Elgoibar Ikastolak antolatutako Euskal Inauteriarekin hasi dira gaur inauterietako ospakizunak Elgoibarren, eta martitzenera arte iraungo du mozorroren festak. Bihar izango da inauterietako egun handia, eta hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Udalak eta Elgoibarko Izarrak. Arratsaldean etxeko txikiak izango dira protagonista. 12 urtera bitarteko umeentzat Atxutxikarakea egingo dute Kalegoen plazan, 17:00etatik aurrera, eta ondoren, gaztetxoentzako mozorro desfilea egingo da. Gauean, bestalde, nagusiek hartuko dute umeen lekukoa: 23:00etatik



aurrera animazioa egingo da Maalako parkean, eta 23:30ean kalejiran irtengo da Mauxitxa txaranga. 00:30erako mozorro lehiaketa antolatu du Elgoibarko Izarrak. Taldeka zein banaka aurkezteko aukera egingo da: taldekako lehen saria 275 eurokoa izango da, eta bigarrena, 175ekoa. Banakako alorrean 125 euroko sari bakkarra emango dute, eta kopuru berbera jasoko du koreografia onena egiten duen taldeak. Antolatzaileek jakinarazi duteenez, partaideek ez badute maila nahikoa ematen sariak eman gabe lagako dituzte.

Martitzenean, bestalde, mozorroren topaketa egingo dute Kalegoen plazan, eta gero, kaleko musikariak eta Mauxitxa txarangaren kalejira izango dira.

Inauteriak Mendaron

Mendaron ere egingo da non aukeratu eta gozatu. Arno guraso elkarteak antolatuta, arkakusoaren zirkoa aurkeztuko du Zurru Murru antzerki taldeak. Goñati pilotalekuan izango da ikuskizuna, 17:00etatik aurrera. Ondoren, txokolate jana egingo dute, eta gaueko 21:00ak aldera arte diskoteka itxura hartuko du frontoiak.

Jon Iriondo eta Guillermo Hijano elgoibartarrak saritu dituzte Azkue Fundazioaren komiki digitalen lehiaketan



Komiki digitalen lehiaketa antolatu du estreinako Bizkaiko Azkue Fundazioak, eta DBH2koen mailan Arreiturre institutuko Jon Iriondo eta Guillermo Hijanok irabazi dute sariketa. Sare sozialetan pribatutasunaren gaia landu zuen Elgoibarko bikoteak.

2012an zehar Azkue fundazioaren Euskararen Interpretazio Zentroa bisitatu zuten ikasleek hartu dute parte lehiaketan, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, oso arrakastatsua izan da. Urtarrilaren 26an egin zuten sari banaketa Bilboko Euskararen Etxean, eta hantxe izan ziren Elgoibarko ordezkariak.

Lñigo Lariz eta Mikel Navarro izan dira onenak Altitoy mendi eskiko proban parte hartu duten euskal herritarren artean

Sailkapen nagusian hamaseigarren sailkatu dira Lariz eta Navarro

Open Altitoy Ternua mendi eskiko proba entzutetsua jokatu dute asteburuan Luz Ardiden inguruko mendietan. 220 bikotek amaitu dute proba osoa, eta tartean hainbat elgoibartarrek. Gure ordezkarien artean, lñigo Lariz izan da, beste behin ere, azkarrena. Mikel Navarro arrasatearrarekin osatu zuen bikotea lñigo Larizek, eta, adierazi dutenez, aurrez euren buruari jarritako bi helburuak bete dituzte: lehen hogeiren artean sailkatzea eta helmugan lehenengo bikote euskal herritarra izatea.

Seigarren aldiz antolatu dute Open Altitoy mendi eskiko lasterketa, baina egon aurten da berrikuntzarik. Grande Course kategoriaren barruan sartu dute lasterketa; hau da, munduko mendiko eski lasterketa garrantzitsuenak batzen dituen *challenge* edo txapelketaren barruan. Horrenbezet, koska bat gora egitea lortu dute antolatzaileek, Pirineotako mendiko eskiko erreferente nagusia izateko bidean. Izan ere, ahalegin horretan buru belarri lanean dihardutela aditzera eman dute. Katgoria estreinatzearen onuretako bat zera izan da: aurten goi mailako eskiatzaile gehiago erakarri dituztela. Bi ibilbide jarri zituzten aukeran, eta bietan parte hartu dute elgoibartarrek.

Bi ibilbide

A ibilbidean, William Bon Mardion eta Jacquemoud Matheo gailendu ziren, eta sailkapen nagusian hamaseigarren egin zuten lñigo Lariz eta Mikel Navarrok. Maila horretan, 28. sailkatu ziren Arkaitz Irureta eta Javi Dominguez, eta 90. postuan Joseba Elustondo eta Iker Leonardo.

B ibilbidean, berriz, Manuel Picon Bravo eta Antonio Alcalde nagu-



Mikel Navarro eta lñigo Lariz.

situ ziren. Elgoibartarren artean, Eneko Aduriz eta Aitor Azkue izan ziren maila honetan azkarrenak. Sailkapen orokorrean 42. postuan amaitu zuten. B ibilbidea osatu zuten gainerako elgoibartarrak hauek izan ziren: Palacios San Martin eta Mikel Armendia (47.), Jose Jabire Zurikarai eta Ekaitz Baskaran (94.), eta Josu Ildiakes eta Ander Zabala (97.). lñaki Laskurainek ere osatu zuen ibilbidea, baina bakarka.



‘Aritza’-ren harriekin marka ontzen saiatuko da Izeta II.a domekan Mendaron

Egur Sport enpresak Mendaro aukeratu du herri kirolen hurrengo saiorako. Domekan izango da, 12:00etatik aurrera (Argitaratu dituzten karteletan Ikastolako frontoian izango dela jartzen badu ere, saioa Goñati frontoian izango dela argitu du Udalak). Batetik, Izeta II.a bere marka ontzen saiatuko da Pedro Mari Txurruka *Aritza* mutrikuar ezagunaren harriekin. Bi harri dira: bata, 137 kiloko harri errektularra (22 ontzakoa), eta bestea, 100 kiloko harri kubiko zaharra. Hamabost minutuko bi tanda egingo ditu, tartean atsedenik hartu gabe.

Bestetik, urrezko aizkolarien binakako txapelketa ere jokatuko dute. Bi saioak euskal telebistaren bidez eskainiko dituzte gero (ETB1 eta ETB-sat).

Sarrerak salgai daude dagoeneko Txirristaka eta Uztargi tabernetan, 5 euroan. Egunean bertan 15 euroan salduko dituzte, frontoian bertan jarriko duten txarteldegian. Umeek doan izango dute.

Nazioarteko krosen sailkapenean bigarren dago Mugertza Krosa

Euskal Herriko krosik onena izendatu dute



Espainiako Kros Antolatzaileen Elkarteak eman du sailkapenaren berri (<http://www.anoc.es>): Mugertza Krosa Euskal Herriko krosik onena izendatu dute, eta nazioarteko bigarren onena, Atapuercakoaren ostean (Burgos, Espainia). Sailkapen nagusi horretan, hamaikagarren postuan ageri da Lasarteko krosa, eta tartean sona handiko beste kros batzuk ere badira, Italiako Campaccio krosa, Ediburgoko Bupa Great krosa edota Sevillako Itlica adibidez. Mugertza Krosaren aldean aurrekontu handia dauka, esate baterako, Itlica Krosak, nahiz eta krisiaren ondorioz azken urteetan murrizketa dezentekoa izan duen. "Horrek erakusten du diruak ez duela dena egiten. Atletek eurek ere esaten dute Elgoibarren oso ondo hartzen dituztela", adierazi du Felix Berguak, Ego-Tokiko kide eta ANOC elkartearen sortzaileetako bat izandakoak.

Martin Hernandez alebina, Gipuzkoako kros txapeliduna



Mintxeta Atletismo Taldeko Martin Hernandezk irabazi du Gipuzkoako kros txapeliduna, alebinetan. 2.065 metroko ibilbidea 7:30eko denboran egin zuen Martinezek. Bestalde, Eskolarteko Euskadiko Txapelketako taldekako sailkapenean, hirugarren egin zuten infantilen mailako Mintxeta Atletismo Taldeko neskek.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 2 – Aurrera Vitoria 1 (3. maila)
 Elgoibar 2 – Urola 4 (Neskek)
 SBB Mutrikuarrak 1 – Elgoibar 1 (Erregionala)
 Behobia 1 – CD. Elgoibar 1 (Jubenila)
 Aurrera Ondarroa 3 – Elgoibar 4 (Kadete A.)
 Añorga 5 – Elgoibar 0 (Kadete B.)
 Urola 11 – Elgoibar 2 (Ohorezko infantilak)
 Elgoibar 3 – Aloña Mendi 3 (Alebinak)

ESKU PILOTA

Añorga 12 – Lagunak 22 (1. mailako nagusiak)
 EPLE 12 – Lagunak 22 (1. mailako nagusiak)
 Lagunak 14 – Intza 22 (2. mailako jubentilak)
 Lagunak 20 – Hondarribia 22 (2. mailako kadeteak)
 Eibar 12 – Lagunak 22 (3. mailako jubentilak)

Palaz

Lagunak 25 – Gazteleku 7 (2. mailako nagusiak)
 Lagunak 24 – Usurbil 25 (2. mailako nagusiak)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Sigüenza 0 (Bigarren B Maila)

SASKIBALOAIA

Viento Sur 67 - DKS Lurgoien 64

ESKUBALOAIA

Trapaga 27 – Alcorta Forging 20 (Sen. mut.)
 Technifuelle 35 – Usurbil KE 25 (Sen. neskek)
 Urduliz 29 – Lauko 33 (Jub. neskek)
 CD Egia 35 – Berstain Banaketak 26 (jub. mut.)
 Txarriduna 35 – CD Egia 30 (Kad. mut.)
 Federopticos 18 – Bera Bera 21 (Kad. neskek)
 Aiala Zarautz B. 8 – Murgil eraikuntzak 30 (Inf. neskek)
 Bankoa 35 – Bergara KE 17 (Inf. mut.)
 Aiala Zarautz KE C. 9 – Cometel 33 (Inf. neskek)
 Deca 27 – Alzola Urak Pulpo KE 33 (Inf. mut.)
 Arrasate EB 21 – Gabaz 30 (Sen. mut.)
 Bera Bera 25 – Casa Astigarraga 25 (Kad. neskek)
 Aterpe 19 – Aiala Zarautz 5 (Inf. neskek)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapata, 9
 10:30 Elgoibar – Urola (Infantil Txiki)
 12:15 Elgoibar – Zarautz (Lehen mailako kadeteak)
 16:00 Elgoibar – Urki (Jubenilak)

Domeka, 10

16:30 Elgoibar – Añorga (Kad.)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapata, 9
 19:30 Alkorta – Pulpo (Senior mutilak)
 Domeka, 10
 11:30 Alkideba – Urola (Alebinak mutilak)

ESKU PILOTA

Barixakua, 8
 21:15 Zortza – Lagunak (3. mailako kadeteak)
 22:00 Lagunak – Azkoitia (1. mailako nagusiak)
 22:45 Lagunak – Urnieta (1. mailako nagusiak)

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. Arratsalde, 15:00etatik 20:00etara. Orduka ere bai. ☎ **606 213 945**
- Esperientziadun mutila sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ **606 213 945**
- Neska gaztea edozein lan egiteko prest. ☎ **628 647 809**
- Emakumea lan bila: esperientzia handia daukat nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. ☎ **690 064 225**
- Mutil gaztea lanerako prest: garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo banatzaile lanetarako prest. ☎ **682 518 370**
- Pertsona arduratsua lan bila. Esperientzia daukat nagusiak zaintzen. Garbiketarako egiteko edo sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ **606 072 354**
- Emakumea lan bila: Garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ **681 065 683**
- Mutil arduratsua baserrian edo nagusiak zaintzen egingo luke lan. Egunez nahiz gauetz, etxean edo ospitalean. ☎ **606 072 354**
- Mutila eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Ohetik jai-ki ezinda daudenak zaintzen esperientzia daukat. Erreferentzia onak. ☎ **616 328 060 / 943 744 028**
- Enpresa ikasketetan lizentziatutako bi lagun lan bila ari dira. Ekonomia, kontabilitate, fiskal eta laboral arloan egingo lukete lan. ☎ **617 332 301**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, arratsalde eta gauetz. Etzeko lanak egiteko ere prest. ☎ **636 590 016**

- Neska lanerako prest: dendari, garbitzaile, zaintzaile... Arratsalde. ☎ **671 478 823**
- Neska lanerako prest: dendari, garbitzaile, zaintzaile... edozertarako prest. ☎ **671 225 189**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943 531 378 / 690 925 929**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaintzeko, etzeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile moduan aritzeko prest. ☎ **638 884 104**
- Emakume arduratsua lan bila. Gauetz, nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean zein ospitalean. Autoa daukat. ☎ **688 802 701**
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka, eta gauetz ere bai. ☎ **680 121 252**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean nahiz ospitalean. Goizez, arratsalde edota orduka. ☎ **660 551 781**

ESKAITZA

- Irakasle partikularra behar da, DBH3. mailako ikasle batentzat. ☎ **634 462 336**
- Sukalde laguntzailea behar da asteburuetarako. Interesatuak eraman curriculumak Gautxo jatetxera. ☎ **943 740 955**

ETXEBIZITZAK

- Senar-emazteek etxea hartuko lukete alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 474 923**

- Etxea salgai, Juan Mugertza 1ean. 115m², 8. solairua, oso eguzkitsua. Egoera onean. 192.000 euro. ☎ **666 235 499**
- Babes ofizialeko etxea salgai, Santa Ana kaleko promozioan. Hiru logela eta bi komun. 80m², garajea eta trastelekua. Distribuzio ona. Hobekuntza batzuekin eta oso egoera onean. ☎ **650 344 428**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **608 474 923**
- Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **620 712 478**

GARAJEAK / LOKALAK

- Garaje itxia alokairuan San Roke auzoan, kiroldegijarekin. ☎ **943 742 931 / 660 937 529**
- Garajea salgai edo alokairuan, Jausoron eta Lekuederren. ☎ **652 727 631**

BESTELAKOAK

- Ostalaritzako tresneria salgai negozio aldaketagatik: kafetera, izotz makina, musika aparatua, garbigailua... Banaka ere saltzen dira. ☎ **665 720 977**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarri gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarri gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



IV URTEURRENA

ALBERTO ORTUETA AZKARRETA

*Bizitzarekin adiskidetzen saiatzen naiz eta ia lortu dut,
baina zin dagizut zaila egiten zaidala.
Izan ere, atzera begiratzen dut
eta zure ondoan bizi izandako egunak
ia perfektuak iruditzen zaizkit
Horregatik maite zaitut.
Horregatik, eta beste hainbat gauzagatik.*

Mariaje, zure semeak eta Aitor Txikik.

2009ko otsailaren 4an hil zen. Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 9, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretanoi eskerrak alde zaurretik.



• Zorionak, **printzesita** Nora, otsailaren 6an 10 urte egin zenituelako. Maitasun handiz, familiakoek, gurasoek eta ahizpa Anek.



• Zorionak, **Nar**oa, bihar 6 urte egingo dituzulako. Bereziki, amama eta aitaitxa, eta amatxo eta aitaxoren partez. Muxu bat.



• Zorionak, **Ane!** Atzo, 5 urte! Muxu handi bat etxekoen, eta bereziki, Naia eta lehengusinen partez.



• Lau, lau, lau, sardiña bakalau! Zorionak, **maitia**.



• Konturatu orduko, urtetxo bat, **Jare!** Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Jokin**, atzo 4 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat familiakoen eta bereziki, arreba Maddiren partez.



• Zorionak, **Leire**, zure 4. urtebetetzear. Patxo handi bat, bereziki, Malenen eta Lukenen partez.



• Otsailaren 12an, urtebete! Zorionak, **txapel-dun!** Prest zure lehen urtebetetze eguna ospatzeko? Ondo pasa! Muxu bat.



• Mila, mila, mila, zorion, **aitaxo!** Urte askotarako. Gaur ospatuko dugu zure eguna. Ondo pasa! Etxekoen, eta Haizearen partez.



• Zorionak, **Nahia**, hilaren 5ean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi-handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **maitia**, otsailaren 1ean 9 urte bete zenituelako. Etxekoen partez. Asko maite zaitugu.



• Zorionak, **Olatz**, gaur 4 urte egin dituzulako. Muxu handi bat Nadia, Ander, Lorea eta bereziki, Izaroren partez.



• Zorionak, **Eneko**, zure seigarren urtebetetzear! Etxeko guztion, eta bereziki Joneren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Arai**, igandean urte bat egingo duzulako. Muxu bat familiakoen partez.



• Zorionak 8 urteko gure **pokemon** txapel-dunari!



• Zorionak, **Udane**, asteazkenean 6 urte bete zenituelako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Ali** eta **Arantxa**, zuen urrezko ezteietan. Egun polita pasa! Familiakoen partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:


Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRE**neko bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

ESKERTZA

MARGARITA MUGUERZA IZAGUIRRE

2013ko otsailaren 5ean hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola, hileta elizkizunetara agertu izana.



8 barixakua

Musika

23:00 Kontzertua

Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

10 domeka

Musika

12:30 Udal musika bandaren kontzertua

Herriko Antzokian.

- *Re, fa, si* (E. Delfino).
- *La flauta mágica* (Mozart)
- *Antillianse suite* (Kees Vlak)
- *Viva Navarra* (Larregla)
- *Suite para banda* (Alfred Reed)

INAUTERIAK 2013

8 BARIKAKUA

15:15 Ikastolako euskal inauteria

Kalejira eta dantza saioa, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Ikastolan.

16:30 Mozorro festa

Ludotekan.

9 ZAPATUA

17:00 Abxutikaraokea

Kalegoen plazan.

17:00 Arkakusoaren zirkoa

Mendaroko Goñati pilotalekuan. Jarraian, txokolatada eta diskoteka.

18:30 Gazteboen mozorro desfilea eta koreografiak

Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Maalako

parkean.

19:00 Txaranga eta koko dantzak

Koko dantzen kalejira, Mauxitxa txarangarekin.

23:00 Animazioa

Maalako parkean.

23:30 Kalejira

Mauxitxa txarangarekin.

00:30 Mozorro eta koreografia lehiaketa

Maalako parkean.

10 DOMEKA

18:00 Dantzaldia

Gelatxo orkestrarekin, jubilatuen biltokian.

12 MARTITZENA

16:30 Mozorroen topaketa

Kalegoen plazan.

16:45 Txantxariak

Kaleko musikariak, Kalegoen plazan. Euria egiten badu, Maalako parkean.

18:15 Kalejira

Mauxitxa txarangarekin.

18:30 Dantzaldia

Gelatxo orkestrarekin, jubilatuen biltokian.



ZWEA

'Los miserables'

8, barixakua: 22:15

9, zapatua:

19:00/22:15

10, domeka:

19:00

11, astelehena:

21:30



'Haritzaren bihotza'

10, domeka: 16:30



'Blancanieves'

Ongarri zinekluba

14, eguena: 21:30



OKINDEGIA

10 domeka:
IBARRENEA

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

8 Yudego
9 Zabaleta
Goizez: Etxeber.

10 Zabaleta
11 Yudego
12 Ibañez
13 Garitaonandia
14 Etxeberria
15 Fernandez

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Etxeberria
Etxeberria
Yudego
Etxeberria
Garitaonandia
Etxeberria
Garitaonandia



Otsailaren 12an,
asteartean,
inauteriak
direla eta, Ludoteka
itxita egongo da.

Larunbatean inauterietako
makillajearen **aditua den**
lagun bat etorriko da,
nahi duenari aurpegia
margotzera. Goizez eta
arratsaldez egongo da.



Gabi
jatetxea

Nafarroa osparentza s/6
Tel: 943 741 230

Gabi jatetxeak dei egiten die elgoibar guztiei bihar, zapatua, disfrazatuta agertzeko tabernara, 20:00etatik 21:00ak bitartean. Bi lagunentzako inauteri menuarekin sarituko dute disfrazik onena.

Bakailao entsalada epela, ozpin-olio emulsionatuarekin ondutakoa.

Barazki panatxea, urdaiazpiko-kurruskariarekin.

Zaputxoa donostiar erara edo tomate eta albahiaca saltsan egindako lupia.

Azpizuna onddo saltsarekin edo ardo beltzean ondutako txerri masaila.

Limoi kremarekin betetako kanutilloak edo edalontzi

bete txokolate, marrubiekin eta menta izozkiarekin.



elgoibar ikastola

HEGURI OGUERDIO PROIEKTUA P. M. Urruzuno Kooperatiba

eskerrik asko!
gurean izena
eman duzuen
guztioi



www.elgoibarikastola.net



Kooperatiba Elgoibar
2018

943 744441



elgoibare@kastola.net

MOJITO JAIA

Inauterietako zapatuan

VIENTO SUR

GASTROTEKA





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihok

Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 531 847
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 254 522

Pagoaga

Biltegia eta tallerra
San Antolin, 13
☎ 943 740 279
Bulegoa eta erakusketa
Pedro Migel Uruzuno, 8
☎ 943 943 740 512
pagoagasa@euskalnet.net

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 756 044/659 334 323

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 755 062/607 755 062

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 740 530/605 714 905
Faxa: 943 531 825

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 740 789/650 586 144



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Gremioen GIDA